

## 24/2024 ALKATETZA EBAZPENA

### **Tolosaldea Garatzen SA elkarteari, Tokiko Garapeneko Ingurumen Teknikarien zerbitzu partekatua diseinatu, kontratatu eta kudeatzeko enkargua**

#### **I. Aurrekariak**

**1.-** Ikaztegieta Udalak, 2022ko ekainaren 29an egindako Udal osoko bilkuran, Tolosaldea Garatzen SA merkatal enpresa Udalaren bitarteko propio izendatzea onartu zuen, Sektore Publikoko Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritako baldintzak betez, izendapen-akordioarekin bat egiten duten eskualdeko beste udal batzuekin batera.

**2.-** Tolosaldea Garatzen SA merkataritza-elkarteak, A-20500229 IFK, iraupen mugagabea, eta Tolosan Lehiberri zentroan 1 zenbakian du bere egoitza. 1994ko uztailaren 27an eratu zen Tolosan, Jose Manuel Domingo Serrano notarioak emandako eskritura publiko baten bidez; eskritura horrek 1.275 protokolo zenbakia du, eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago 1.488. liburukiko 166. folioan, SS-9710, orrialdea, 1go inskripzioan.

Merkataritza-sozietatearen Batzar Nagusiak 2022ko abenduaren 12an egindako ezohiko bilkuran aldatu zituen estatutueta 3.bis Artikuluan ezarritakoaren arabera,

*“TOLOSALDEA GARATZEN SA elkarteak, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo udalerrien Bitarteko Propio edo/eta Zerbitzu Teknikoa da.*

*Hori dela eta udalerriek bitarteko propio duten sozietatearekin dituzten harremanek izaera instrumentala eta ez-kontratuzkoa dute, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (9/2017 Legea) 32. artikuluan aurreikusten diren mandatuen bidez antolatu ahalko dira; horrenbestez, ondorio guztietarako, barne eta mendeko izaerakoak dira.*

*Botere adjudikatzaile horiek Sozietateari jardueraren bat egiteko aginduz egiten dioten jakinarazpena jarduera horri ekiteko agindua izango da; hala ere, 9/2017 Legearen 32.6.b) artikuluan ezarritakoa bete beharko da.*

*Emandako zerbitzuengatik konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: sozietateak eginiko mandatuaren xede diren jardueretarako mandatu egiten duen botere adjudikatzaileak onetsitako tarifak, eta Estatuak erregelamenduz erabakitzen duen moduan. Horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatzeko jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, kostu hori txikiagoa denean azpikontratatuak jarduerari tarifak aplikatuz heldu dena baino.*

*Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoizitako unitateak egiteko benetako kostu guztiak jasotzeko moduan kalkulatu dira. Mandatuaren tarifak edo konpentsazioak mandatuko prestazioaren balioa estali beharko du, eta hura kalkulatzeko, zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak izan beharko dira kontuan. Tarifek inolaz ere ez dituzte onura-marjinak izango, eta haietan likidazio partzialak egin ahalko dira ekitaldi bakoitzaren kontura, baina, halere, behin betiko likidazioa egingo da.*

*TOLOSALDEA GARRETZEN SAK ezingo du parte hartu esandako Udal organoek deitutako enkante publikoetan, nahiz eta agindu ahalko dion enkantearen xede zen prestazioa emateko, lizitatzailerik aurkezten ez bada.*

*Urte anitzeko mandatuen kasuan, likidazioa egingo da aurrekontu-ekitaldi bakoitza ixtean, nahiz eta jarduketa amaitua aitortu eta egiaztatu egingo den legez ezarritako baldintzetan, eta dagokion dokumentua emango da, eta likidatu egingo da, gehienez hurrengo hiru hilan barruan.”*

**3.-** Udal kudeaketa garapen jasangarriaren printzipioetara egokitzeko ekimenak, programak eta estrategiak aurrera eraman behar dira. Garapen iraunkorra, hain zuzen ere, hauxe da: beste gune geografiko batzuen edo etorkizuneko belaunaldien garatzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe uneko eta etorkizuneko tokiko beharrak asebetetzea.

Ikaztegietako udala neurri txikikoa da giza eta ekonomia baliabide urriekin, eta horren aurrean tokiko garapen jasangarriko proiektuak bere kabuz garatu eta behar bezala ezartzeko modurik ez duela. Ondorioz, Tolosaldea Garatzen, S.A., eskualdeko garapen agentziara jo duela zerbitzu hori udal desberdinen artean partekatu ahal izateko beharrezkoak diren teknikariak kontratatuzko eta haien bidez zerbitzua bermatzeko eskatuz.

**4.-** Tolosaldea Garatzen, S.A.k eskualdeko udal guztien artean sortutako erakundea izanik, eta bere gizarte xedean aurreikusitakoari jarraiki, haien arteko zerbitzu partekatua sustatzen dituela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta garapen iraunkorreko proiektuak garatzeko plataforma moduan.

Tolosaldea Garatzen, S.A.ko Batzar Orokorrak 2023ko abenduaren 18an ospatutako bilera onartu duela gestio planaren ekintza moduan, ingurumen teknikari partekatuen zerbitzua eskaintzea, zerbitzu horren beharra adierazia duten udalei: Alegia, Amezketa, Asteasu, Berastegi, Elduain, Ikaztegieta, Lizartza eta Orexa.

**5.-** Ikaztegietako udalak eskatutako zerbitzua eskaini ahal izateko, eskualdean zerbitzu partekatuetarako behin betiko kontratazio eredu finkatu bitartean, eta beti ere, behin behinekotasun irizpidearekin, Tolosaldea Garatzenek tokiko garapen iraunkorreko proiektuetarako teknikari partekatuen zerbitzuak eskainiko dituela.

Horretarako Tokiko Garapeneko Ingurumen Teknikariek udal honetan garatuko dituen jarduerak eta programak dinamizatu, diseinatu eta garatzeko zerbitzua arautzeko beharrezkoak diren ekintzak burutu behar dira.

## **II Zuzenbidezko Oinarriak**

**I.-** Tolosaldea Garatzen SA, beraz, ikaztegietako Udaleko baliabide pertsonifikatua da, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, ezarritakoaren arabera.

Horregatik, jasotako agindua egikaritzeko egin behar dituen negozio juridiko guztiak SPKLren pean egongo dira dagozkion zehaztapenekin; lanak burutuko dituen entitatearen izaeraren, balio zenbatetsiaren eta motaren arabera. Norbere baliabidea botere esleitzailerik ez denean, SPKLren Hirugarren Liburuaren I. Tituluan dauden arauak aplikatuko zaizkio. Halaber, ez dago norbere baliabideei ezarritako % 50eko balio mugarik, Legeak salbuetsi egiten dituelako zuzenbide pribatuko elkarte bati aginduak ematen zaizkionean, beti ere titularitatea publikoa denean eta baita bere kapitala ere; hau da Tolosaldea Garatzen SA merkataritza-sozietatearen kasua.

**II.-** Tolosaldea Garatzen S.A.k bere estatutuetan jasotzen dituen funtzioen artean, orohar, gizarte xedea betetzeko beharrezkoak diren iharduera guztiak garatzea jasotzen da, horretarako eskaera egiten zaionean, Elkarateak laguntza teknikoa eskaini die udalei, bere gizarte-xedearen barruko arazoetan.

Tolosaldea Garatzen, S.A.ko estatutuen arabera, bere gizarte xedea honakoa da: *“Tolosaldeko udalen biziberritze eta ekonomia garapenerako lagun lezaketen jarduera guztiak burutzea, enpresen eta enpleguaren sustapena barne, eta baita herrietako zerbitzu publikoen eskaintzarako elkarlana eta koordinazioa indartu eta sostengatzea ere”*

Azalduetako guztiagatik,

## **EBAZTEN DUT**

**LEHENA:** Tolosaldea Garatzen SA elkarteari, Tokiko Garapenerako Ingurumen Teknikarien zerbitzu partekatua diseinatu, kontratatu eta kudeatzeko enkargua agintzea. Egikaritze hori datozen klausulek arautuko dute.

## **KLAUSULAK**

### **Lehena. Enkarguaren xedea.**

Agindu honen bidez, Ikaztegietako Udalak, Tolosaldea Garatzen SA merkataritza sozietateari eskatzen dio Tokiko Garapenerako Ingurumen Teknikarien zerbitzu partekatua diseinatu, kontratatu eta kudeatzeko enkargua.

Enkarguaren helburua da Tolosaldea Garatzen S.A.k, Ikaztegietako Udalean modu partekatuan garapen jasangarriaren inguruko ekimenak garatzea.

Tolosaldea Garatzen S.A.k Ikaztegietako udalean garapen iraunkorreko estrategiaren jarraipenean modu partekatuan honako funtzioak bideratuko ditu:

- Udalaren garapenerako beharrezkoak diren ekintzak sustatu eta dinamizatu, beti ere garapen iraunkorrean oinarrituta.
- Udalerriko Tokiko Agenda 2030 sustatu eta informazioa zabaldu.
- Bere gaiekin bat datozen dirulaguntzen eskaerak bideratu eta jarraipena egin.
- Ekintza planen jarraipena burutu eta errebisioez arduratu.
- Bere kualifikazio profesionalarekin bat datorren beste edozein zeregin, halakorik agintzen badiote.
- Tolosaldea Garatzeneko Udal Saileko arduradunaren ardurapean egongo da, hark sustatutako lan ildoak eta ekintzak bultzatuz.

### **Bigarrena. Egikaritzearen baldintzak**

Tokiko Garapenerako Ingurumen Teknikarien zerbitzuak, hurrengo baldintzak izango ditu:

Zerbitzuak honela emango dira:

a) Tolosaldea Garatzen erakundeak bere bitartekoen bidez emango dizkie zerbitzuak enkargua sinatu duten udalerrietako eragile eta herritarrei.

b) Tolosaldea Garatzen-ek bere baliabide propioekin kudeatuko du mandatu hau sinatu duten udalek egindako ekarpenen kobrantza, aurreko atalean aipatu diren zerbitzuengatik.

Zerbitzuak honako egutegi eta ordutegiaren arabera eskainiko zaizkie Tokiko Garapenerako Ingurumen Teknikarien zerbitzuak enkargu bidez eskatu dituzten udalei:

UDALA	EGUNA
ALEGIA	Ostegunak
AMEZKETA	Astelehenak + Asteazkenak
ASTEASU	Astearteak
BERASTEGI	Asteazkenak
ELDUAIN	Ostegunak
IKAZTEGIETA	Ostiralak
LIZARTZA	Astelehenak
OREXA	Astearteak

### **Hirugarrena. Epea.**

2023ko abenduaren 18an ospatutako Batzar Orokorrean eskualdeko udalek onartutako 2024ko Gestio Planean oinarritua dagoenez, enkargu honek 2024ko urtarrilaren 1tik aurrerako ondorioak izango ditu, eta 2025eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

### **Laugarrena. Enkarguaren justifikazioa eta ordaintzeko era.**

Ikaztegietakoko Udalak ordainduko ditu enkargu honek agindua jaso duen erakundeari eragin dizkion gastuak, bere partaidetzaren arabera. Guztizko kostua urtean 95.610 eurokoa izango da, beraz Ikaztegietakoko Udalak 9.561 euroko gastua edukiko du. 2024ko

udal aurrekontuan, dagokion aurrekontu aplikazioan jasota dago aipaturiko gastu horiei aurre egiteko zenbatekoa. 1 eranskinean adierazi da udalaren enkarguak duen kostuaren azterketa ekonomikoa.

2025eko urtarrilaren 1etik aurrera EAEko urte arteko KPIaren arabera eguneratuko da udalak Tolosaldea Garatzeni ordaindu beharreko zenbatekoa.

Era berean, aurrekontuen gaineko eskumena duen organoak konpromisoa hartu du etorkizunean beharrezkoak diren kredituak erreserbatzeko dagozkion ekitaldietako aurrekontuen barruan.

Tolosaldea Garatzen, S.A.k, dagozkion gastuen tarifak igorriko dizkio Ikaztegietako udalari. Dokumentazio hori egiaztatu ondoren, Ikaztegietako Udalak, honako epeetan ordainduko du horri dagokion zenbatekoa:

- %100 ekainaren 30ean

Proiektua bukatutakoan, aginduaren likidazioa egingo da, eta horretarako aurretik, Tolosaldea Garatzen SA elkarteak, enkargatutako jarduerak justifikatzeko memoria aurkeztu beharko du, bere Batzar Orokorrean onartu ondoren.

#### **Bosgarrena. Enkarguaren irismena eta izaera.**

Enkargu hau Ikaztegietako Udalak bitarteko propio pertsonifikatu bati egindako enkargua da, baina ez da kontratutzat hartzen, eta sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzaren bertikaleko sisteman gauzatzen da, bitarteko pertsonifikatua erabiltzean datzana.

Tolosaldea Garatzen SA erakundeak autonomia osoz eta bere antolaketa-arauen arabera emango eta garatuko ditu enkargatutako zerbitzuak eta jarduera materialak, baina Ikaztegietako Udaleko arlo eskudunetatik datozen beharrezko jarraibide teknikoak errespetatuz, betiere gutxiengo esku-hartzearen printzipioaren eta besteren antolaketarekiko errespetuaren partizioaren barruan.

#### **Seigarrena. Enkarguaren suntsitzea.**

Mandatu hau ezin izango da eten edo amaitu aurre ikusitako epea iritsi aurretik.

#### **Zazpigarrena. Araubide juridikoa.**

Berezko bitartekoari egindako enkargu honek SPKLren 32. artikuluan aurreikusitako izaera du, eta, beraz, artikulua horretan eta SPKLren gainerako artikuluetan adierazitakoaren arabera arautuko da, bitarteko propioei egindako enkarguei aplikatzeko denean (44., 50. eta 63. artikulua).

Baliabide propio pertsonifikatuen araubide juridikoari buruzko SPKLren azken xedapenetatik laugarrenaren 3. apartatuan adierazitakoaren arabera, lege horretan aurreikusten ez den kasuetan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

### **Zortzigarrena. Eztabaiden ebazpena**

Ikaztegietako Udalak nahitaez ebatziko ditu enkarguaren ondorioz sortzen diren interpretazio- eta betetze-arazoak, eta, era berean, egin beharreko jarduketak zehaztu edo aldatuko ditu, betiere haren xedearen funtsa aldatzen ez bada.

### **Bederatzigarrena. Enkarguaren publizitatea**

Mandatu hau Ikaztegietako Udalaren Gardentasun Atarian argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan b) letran ezarritakoa betez.

Era berean, eta SPKLren 63.6 artikuluan adierazitakoaren arabera, zenbatekoa kontuan hartuta, Tolosaldea Garatzen, S.A.ko kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Tolosaldea Garatzen, S.A. merkataritza-sozietateari, Kontuhartzaitzari eta Idazkaritza Departamentuari.

Ikaztegietan, 2024ko otsailaren 6an.

ALKATEA,

Nire aurrean,  
IDAZKARIA

## I ERANSKINA. AZTERKETA EKONOMIKOA

1 ERANSKINA AZTERKETA EKONOMIKOA		URTEKO LANALDIA 1592			
	Dedikazioa	1 TEKNIK	2 TEKNIK	ORDUAK	KOSTUA
	150%	1353	1035	2.388	95.610
ALEGIAKO UDALA	20%	318		318	12.748
AMEZKETAKO UDALA	30%		478	478	19.122
ASTEASUKO UDALA	20%		318	318	12.748
BERASTEGIKO UDALA	20%	318		318	12.748
ELDUINGO UDALA	15%		239	239	9.561
IKAZTEGIETAKO UDALA	15%	239		239	9.561
LIZARTZAKO UDALA	15%	239		239	9.561
OREXAKO UDALA	15%	239		239	9.561
TARIFIKAZIOA		GUZTIRA			
GASTUAK		1 TEKNIK	1 TEKNIK	95.610,00	
PERTSONAL GASTUAK (Gordina+G.Segur)		57.035,00	37.075,00	94.110,00	
ZERBITZUAK		500,00	500,00	1.000,00	
EKIPAMENDUAREN AMORT (PORTAT+SMARTPH)		250,00	250,00	500,00	
<b>LANORDUAK</b>		1.353,20	1.034,80	2.388,00	
<b>ORDUKO KOSTUA</b>				<b>40,04</b>	